

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

LURRALDEA ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZA

Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

Onestea Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren aldaketa, Vitoria-Gasteizen etxebizitzak eta egoitza-erakinak eraberritzeko 2020-2021 ekitaldirako laguntza-deialdia, eta Vitoria-Gasteizko Udalaren eta 21 Zabalgunea SAren artean lankidetzak-hitzarmen bat sinatzea laguntza horiek kudeatu eta izapidetzeko

Hauxe erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko urriaren 30ean egindako ohiko bilkuran:

Lehena: Vitoria-Gasteizko Udaleko 2019-2021 Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren aldaketa onestea, deialdi hau sartzeko.

Bigarrena: Vitoria-Gasteizen etxebizitzak eta egoitza-erakinak eraberritzeko 2020-2021 ekitaldirako laguntza-deialdia onestea; horren gehieneko zuzkidura ekonomikoa 350.000 euro (hirurehun eta berrogeita hamar mila euro) da, 21 Zabalguneari zuzendutako urrezko auzoetako inbertsioak izeneko 2021erako konpromiso-kredituaren kontura, zeinak 0410-1513- 73310 kodea baitu udal aurrekontuan.

Hirugarrena: 21 Zabalgunea SA udal sozietatea erakunde laguntzailea izendatzea onestea, funts publikoak kudeatu, tramitatu, banatu eta emateari dagokienez, dirulaguntzen alorrean indarrean dagoen legediaren ildotik.

Laugarrena: Vitoria-Gasteizko Udalaren eta 21 Zabalgunearen artean helburu horretarako sinatzekoa den lankidetzak-hitzarmena onestea.

Bosgarrena: Birgaitzeko laguntzak arautzeko oinarriak eta Vitoria-Gasteizko Udalaren eta 21 Zabalgunearen arteko lankidetzak-hitzarmena ALHAOn eta udalaren web-orrian argitaratzea.

Seigarrena: Dirulaguntzen Datu-base Nazionalari komunikatzea deialdiaren testua, eta datu-base horrek galdatzen duen informazioa ematea, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 20. artikularekin bat etorritz.

Hitzarmenaren testua

Vitoria-Gasteizko Udalaren eta 21 Zabalgunea SA udal sozietatearen arteko lankidetzak-hitzarmena, Vitoria-Gasteizko udalerrian etxebizitzak eta bizitegi-erakinak birgaitzeko 2020-2021eko ekitaldirako laguntzak kudeatu eta emateko

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 12. artikularen arabera, osorik administrazio publikoen partaidetaz eratutako merkataritza-sozietateak erakunde laguntzailetzat jo ahalko dira. Horrela, erakunde laguntzaileari ahalmena ematen zaio organo emaileen izenean eta haren kontura jardunez funts publikoak onuradunei eman eta banatzeko, deialdian hala ezartzen denean, edo dirulaguntzaren kudeaketan laguntzeko, jasotako funtsak alde aurretik eman eta banatu gabe; funts horiek ez dira inola ere haren ondarearen zatitzat hartuko.

Kontuan hartuta proposatzen den lankidetzaren xedeak ez dakarrela Udalak erakunde laguntzaileen alde inolako zuzeneko kontraprestaziorik egitea, ez gaude administrazio-kontratazioko kasu baten aurrean, eta, horregatik, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 16.5 artikuluan adierazitakoarekin bat etorritik, erakunde laguntzaileak hautatzeko nahikoa da publikotasun, lehia, berdintasun eta bazterketarik ezaren printzipioen mende egongo den prozedura tramitatzea.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko urriaren 30ean.

Bildurik

Batetik, G. U. A. jauna, Vitoria-Gasteizko alkatea den aldetik eta karguari dagozkion berezko zereginak betez (helbide soziala: Espainia plaza 1 - 01001 Vitoria-Gasteiz).

Bestetik, A. O. B. andrea, 21 Zabalgunea udal sozietatearen lehendakaria den aldetik (helbide soziala: Frai Francisco Vitoria ibilbidea 21 C (GureTxokoa) - 01007 Vitoria-Gasteiz).

Adierazten dute

Lehena. Vitoria-Gasteizko Udalak birgaitze integratuko areatzat eta bizitegiarako area degradatutzat jotakoetan dauden etxebizitzak eta bizitegi-erakundeak birgaitzea sustatzeko asmo sendoa du; Eusko Jaurlaritzaren abenduaren 30eko 317/2002 Dekretua —ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketara babestuei buruzkoa— baliatu da area horiek zehazteko.

Bigarrena. 21 Zabalgunea SA udal sozietatea da, zeinaren kapital osoa udalarena baita, eta hiria birgaitu, biziberritu eta berritzeko zeregina agindu zaio, horretarako behar diren ekintzak eta jarduerak gauzatu.

Besteak beste, sortzeko helburu hauek ditu:

a) Udal politika garatu eta gauzatzea eraikin eta etxebizitzaren birgaitzearen alorrean zein hiri biziberritzearen eta berritzearen alorrean, horretarako beharrezko diren azterlanak eta proiektuak landuz eta zeregin hori benetan betetzeko behar diren era guztietako kontratuak gauzatzeko ezein ekintza eta negozio onetsiz.

b) Hiria birgaitzeko, biziberritzeko eta berritzeko jarduerak gauzatzeko ordenamendu juridikoan adierazitakoari jarraituz, zeregin hauek barne: hiri birgaitzearen antolatzearen programak, planak eta gainerako tresnak lantzea; eraikinak edo eraikuntzak kontserbatzeko era guztietako obrak eta konponketak proposatzea Udalari, hark onetsi ditzan —aurretik erabakitako eraikinak ordezteko eraikuntza lan berriak egitea barne—, eta hiri-bilbea biziberritu eta berritzea, Vitoria-Gasteizko Udalak emandako jarraibide, irizpide eta programekin bat etorritik.

c) Hiria birgaitu, biziberritu eta berritzea sustatu eta bultzatzeko ekintzak garatzea, zentzurik zabalenean ulertuta, partikularrei dirulaguntzak eta laguntzak zuzenean ematea barne, baita partikular, enpresa, erakunde eta administrazio publikoekin hitzarmenak egitea ere, bere eskumenen barruan.

d) Vitoria-Gasteizko Udaleko sail eta zerbitzuei laguntza ematea, baita beste administrazio batzuei ere, hirigintza jarduerari, hiria birgaitu, biziberritu eta berritzeari eta lurralde antolakuntzari dagokienez, eta bere irizpena agertzea, onespina ematea Udalari edo beste administrazioen bati dagokionean.

e) Ekimen pribatuko hirigintza jarduerari eta hiria birgaitu, biziberritu eta berritzeko jarduerari laguntza ematea, horien bilakaera ikuskatuz eta antolakuntza, gauzatze eta kudeatze baliabideen berri emanez.

Horrenbestez, hitzarmena sinatzea adostu dute bi aldeek, eta klausula hauek ezarri:

Klausulak

Lehena. Hitzarmen honen helburua da 21 Zabalgunea SA udal sozietatea (sozietatea aurre-rantzean) erakunde laguntzailea izendatzea 2020-2021eko ekitaldian Vitoria-Gasteizko udalerrian etxebizitzak eta bizitegi-eraikinak birgaitzeko ekintzak sustatzeko laguntza ekonomikoak kudeatu eta tramitatzeko, eta laguntza horiek tramitatu eta kudeatzeari dagokionez aldeen arteko harremanak definitzea.

Bigarrena. Vitoria-Gasteizen etxebizitzak eta bizitegi-eraikinak birgaitzeko 2020-2021 ekitaldirako laguntza-deialdian ezarritakoari jarraituz emango dira laguntzak.

Hirugarrena. Onuradunak

Eragindako etxebizitzan eta lokalen jabeak edo gozamedunak izango dira birgaitzeko laguntzen onuradunak, deialdian adieraztekoa betetzen badute.

Laugarrena. Hitzarmenaren indarraldia

Hitzarmen honek 4 urteko indarraldia izango du. Dena den, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Legearen 16. artikulua araberako bada hitzarmena luzatzea, amaitu aurretik bi aldeek adosten badute eta lankidetzaren hitzarmenaren iraupena guztira sei urtetik gorakoa ez bada.

Onetsi eta bi aldeek sinatzen duten unetik izango ditu ondorioak hitzarmenak.

Bosgarrena. Erakunde laguntzailearen betebeharrak

Hitzarmen hau formalizatzeko ez da beharrezkoa 21 Zabalgunea SAK Vitoria-Gasteizko Udalaren alde bermerik eratzeko edo horrelako neurriak ezartzea, enpresaren kapital osoa udalarena baita.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 15. artikulua araberako bada, 21 Zabalgunea SAK betebeharrak hauek izango ditu:

a) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen ezarritakoa betetzea eta erakunde laguntzailearen izaera bere gain hartzea.

b) Laguntza-eskabideak tramitatu eta kudeatzea, Vitoria-Gasteizen etxebizitzak eta bizitegi-eraikinak birgaitzeko 2020-2021 ekitaldirako laguntza-deialdian ezarritako irizpide teknikoekin bat etorritik, eta ebazpen-proposamena Lurraldearen eta Klimaren aldeko Ekintzaren zinegotziari igortzea, hark Tokiko Gobernu Batzarrari aurkeztu eta azkenak onetsi dezan.

c) Laguntzak emateko eskatutako baldintzak eta betekizunak benetan betetzen direla egiaztatzea.

d) Laguntza emateko aintzat hartutako zirkunstantzietakoren bat aldatzen bada, Vitoria-Gasteizko Udaleko Lurraldearen eta Klimaren aldeko Ekintzaren Sailari jakinaraztea.

e) Onuradunek Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13 artikuluan eskatutako betekizunak betetzen dituztela frogatzeko aurkeztu dituzten agiri guztiak ikuskatu eta egiaztatzea, Lurraldearen eta Klimaren aldeko Ekintzaren zinegotziari laguntzak emateko erabaki-proposamena egin aurretik.

f) Agiriak gordetzea, direla jatorrizko agiriak edo jatorrizkoen kopia erkatuak, direla oro har onartutako datu-euskarriak, bereziki jatorrizko agirien bertsio elektronikoak edo bertsio elektronikoan baino ez dauden agiriak.

g) Kontabilitate berezia eramateko delako edo kontabilitate-kode egokia dagoela ziurtatzea, laguntzaren xede diren gastuak identifikatu ahal izateko.

h) Funts publikoak Vitoria-Gasteizen etxebizitzak eta bizitegi-eraikinak birgaitzeko 2020-2021 urterako laguntza-deialdian eta hitzarmen honetan ezarritakoari jarraituz banatu eta ematea. Funts horiek ez dira inola ere sozietatearen ondarekotzat joko.

i) Jasotako funtsak besteri eman izana justifikatzea dirulaguntzak ematen dituen organoaren aurrean, eta, behar izanez gero, onuradunek aurkeztutako justifikazioak helaraztea Lurraldearen eta Klimaren aldeko Ekintzaren Sailari.

j) Sozietateak izapide egokiak egin beharko ditu, eta eman eta banatzen diren funtsak 350.000 euro (hirurehun eta berrogeita hamar mila euro) baino gehiago ez direla baieztatu. Zenbateko hori gainditzen denean sozietateak ezingo du laguntza-eskabide berririk tramitatu.

k) Funts horien kudeaketa dela eta organo emaileak egiten dituen egiaztatze-jardueren mende jartzea, baita Vitoria-Gasteizko Udalean kontrolerako eskumena duten organoek egin ditzaketen finantzen kontrol eta egiaztapen jardueren mende ere —kontrol-organo komunitarioen eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren eskumenak bazter utzi gabe—, aipatutako jarduerak betetzean eskatzen dioten informazio oro aurkeztuz.

l) Laguntza onartzeko zio izan ziren baldintzetan aldaketarik izan bada eta horrek gerora eskubidea galtzea ekar badezake, berehala jakinaraztea Vitoria-Gasteizko Udaleko Lurraldearen eta Klimaren aldeko Ekintzaren Sailari.

Seigarrena. Laguntzen diru-zenbatekoa eta diruz lagundu daitezkeen gastuak

Erakunde laguntzailea den aldetik, 21 Zabalgunea SA udal sozietateak kudeatuko du birgaitzeko laguntzen tramitazioa, Vitoria-Gasteizen etxebizitzak eta bizitegi-eraikinak birgaitzeko 2020-2021 ekitaldirako laguntza-deialdian ezarritakoari jarraituz.

Vitoria-Gasteizko udalerrian etxebizitzak eta bizitegi-eraikinak birgaitzeko 2020-2021 ekitaldirako laguntza-deialdiaren seigarren puntuan arautzen da birgaitze jardueretarako laguntzen zenbatekoa; bosgarren puntuan zehazten da nortzuek jaso ditzaketen laguntzak.

Zazpigarrena. Laguntzen finantzaketa eta ordainketa

Vitoria-Gasteizko Udalak ebatziko du birgaitzeko laguntzak nori eman, Tokiko Gobernu Batzarraren bitartez. Behin obra gauzatu eta aipatutako deialdian ezarritakoari jarraituz aurkeztu denean, Tokiko Gobernu Batzarrak aitortutako zenbatekoaz hornituko du Vitoria-Gasteizko Udalak 21 Zabalgunea udal sozietatea, funts publikoak onuradunei eman eta bana diezazkien.

Aurrekontuan gehienez 350.000 euro (hirurehun eta berrogeita hamar mila euro) dago birgaitzeko laguntzak emateko, 21 Zabalguneari zuzendutako urrezko auzoetako inbertsioak izeneko 2021erako konpromiso-kredituaren kontura, zeinak 0410- -1513-73310 kodea baitu udal aurrekontuan.

Erakunde laguntzaileak hitzarmen honetan aurreikusitako helbururako baino ezingo ditu funts horiek erabili.

Behin obra gauzatu eta justifikatu denean, eta deialdian agindutako informazio guztia Lurraldearen eta Klimaren aldeko Ekintzaren Sailari igorritakoan, Tokiko Gobernu Batzarrak aitortutako zenbatekoaz hornituko du Vitoria-Gasteizko Udalak 21 Zabalgunea SA udal sozietatea, funts publikoak onuradunei eman eta bana diezazkien.

Lurraldearen eta Klimaren aldeko Ekintzaren Sailak eskatuz gero, laguntzak onuradunei ordaintzeko aginduzko diren datu guztiak eman beharko dizkio 21 Zabalgunea SAk, bereziki obra amaierako ziurtagiria edo antzekoa zein fakturak eta merkataritzaren alorreko trafiko juridikoan horien pareko frogabalia aitortzen zaien bestelako agiriak, edo administrazio-eraginkortasuna dutenak (jatorrizkoak nahiz kopia autentiko edo autentifikatuak).

Entitate laguntzaileak kontabilitate-liburu eta -erregistro espezifikoak eraman beharko ditu laguntzak egoki justifikatzeko eta ezarritako baldintzak bete direla egiaztatzeko, horretarako indarrean dauden lege eta arau xedapenei jarraituz.

Zortzigarrena. Ez betetzeak

Hauek aplikatuko dira ez-betetzei dagokienez: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legea, eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, zeinaren bidez Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen araudia onesten baita.

Bederatzigarrena. Izaera eta jurisdikzioa

Hitzarmen honek aplikatu dakizkiokeen administrazio-zuzenbideko arauak bete beharko ditu, baita beste hauetan jasotakoak ere: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legea; uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, zeinaren bidez Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen araudia onesten baita; Dirulaguntzei buruzko 2005eko ekainaren 17ko Udal Ordenantza, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea.

Hamargarrena. Hitzarmena deuseztatzea

Kasu hauetan deuseztatu ahalko da hitzarmena:

- a) Indarraldia amaitu delako.
- b) Aldeek elkarrekin adostuta.
- c) Aldeek ez dituztelako bete beren gain hartutako konpromisoak.
- d) Hitzarmena deuseztatu arren, aldeetako edozeinek onuradunekin hartutako betebeharrak bete beharko dituzte, baita elkarrekin hartutakoak ere, oraindik tramitazioa bukatu ez den dossierrei dagokienez.

Hamaikagarrena. Datuak babestea

21 Zabalgunea SAK datu pertsonalak babestearen alorreko araudia bete beharko du laguntzen eskatzaileek emandako datuei dagokienez, baita administrazio publikoetatik lortzen ditueni dagokienez ere, datu pertsonalak kudeatu, jaso, gorde, kontsultatu, erabili eta komunikatzearekin lotuta; bereziki, haren fitxategiari dagozkien segurtasun neurrien alorreko arauak bete beharko ditu.

Orobat, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Legea Organikoan eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Araudian (UE) —datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio libreari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa— jasotako betebeharrak betetzea bermatu beharko du.

Eta aurreko klausulekiko adostasunaren erakusgarri, hitzarmen honen hiru ale izenpetu dituzte aldeek, goiburuan adierazitako lekuan eta egunean.

Vitoria-Gasteizen etxebizitzak eta bizitegi-eraikinak birgaitzeko laguntzak emateko deialdia. 2020-2021 ekitaldia

1. Xedea

Deialdi honen helburua da laguntza ekonomikoak emateko prozedura eta baldintzak ezartzea, Vitoria-Gasteizko udalerrian 2020-2021 ekitaldian etxebizitzak eta bizitegi-erakinak birgaitzeko ekintzak sustatzearen.

Deialdi honetan jasotako laguntzek izaera finalista dute, eta ematea justifikatu duten birgaitze lanak finantzatzeko baino ezin izango dira erabili. Deialdiaren onuradunek gutxienez 10 urtez erabili beharko dute ohiko etxebizitza eta/edo eraikina laguntza ematea ekarri zuen helbururako, hura benetan ematen denetik kontatuta. Jabetzaren Erregistroan jaso beharko da zirkunstantzia hori, baita hartu den laguntzaren zenbatekoa ere.

Laguntza jaso duen ohiko etxebizitza besterentzen bada, edo irabazizko kargaren bat ezartzen, helbururako erabiltzeko obligazioa ez dela bete joko da, eta dirulaguntza itzuli behar da, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra ezarritako terminoetan, Vitoria-Gasteizko Udalak baimendutako kasuetan izan ezik.

Deialdi honetan jaso ez direnetarako, Dirulaguntzei buruzko Udal Ordenantzan aurreikusitakoari jarraituko zaio birgaitzeko laguntzak ematean, eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legea eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua—Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen araudia onesten duena— aplikatuko dira edonola ere.

Deialdi honen ondorioetarako, hauek joko dira bizitegiatarako eraikintzat: birgaitze lanak egin ondoren, gutxienez azalera erabilgarriaren bi heren —beheko solairua kontatu gabe— ohiko etxebizitzarako baliatzen dutenak.

2. Lehentasunez birgaitu beharreko eremuak eta alderdiak mugatzea

Eusko Jaurlaritzan lurralde plangintzaren eta etxebizitzaren alorrean eskumena duen organoak emandako ebazpenaren bidez Vitoria-Gasteizen area degradatutzat jotakoetan aplikatuko da birgaitzeko laguntzak arautzeko deialdi hau.

3. Babestuko diren jarduerak

Laguntza-deialdi honetan, lan hauek joko dira lehentasunez babestu beharreko jardueratzat: Eusko Jaurlaritzaren 307/2002 Dekretuan birgaitze integratuko areatzat eta bizitegiatarako area degradatutzat jotakoetan dauden etxebizitzak eta bizitegi-eraikinak birgaitzeko obrak, baldin eta diruz lagun daitezkeen jardueratzat jo badira etxebizitza eta eraikinen birgaikuntza efizientearen arloko laguntzen programaren 2019ko deialdiaren barruan (Renove programa) ondare eraikien esku hartzeko proiektuak lantzeko —Euskal Autonomia Erkidegoaren laguntzak—, alde aurretik obrak egiteko udal lizentzia badute. Bereziki, obra hauek:

a) Igogailuak instalatzea, edo igogailua aldatzea, baldin eta kabinaren espazioa handitzeko funtsezko egiturazko obrak egin behar badira.

b) Ingurutzaila energetikoa hobetzeko eta eraikinaren kalifikazio energetikoa gutxienez maila bat hobetzeko lan integralak.

c) Egitura sendotzeko lanak, eraikinen ikuskapen teknikoan (EIT) jasotakoaren arabera: 1., 2. eta 3. gradukoak, egitura patologiak eta hondamena eragozteko.

Oro har babestu beharreko birgaitze jardueratzat joko dira eraikin eta etxebizitzetan egiten diren lan hauek:

a) Irisgarritasun unibertsala hobetu eta traba arkitektonikoak kentzeko lanak eraikinetan eta etxebizitzetan, baita lokaletan ere, horietarako sarrera bide publikotik bada eta komunitateko lanak badira.

b) Eraikinaren energia-eraginkortasuna, isolamendu akustikoa eta osasungarritasun baldintzak hobetzeko lanak, NBE-CT-79 indarrean jarri aurretik egindako eraikinetan, eta Eraikuntzaren Kode Teknikoa betetzen bada. Ez zaie aplikatuko banakoek egindako lanei.

c) Etxebizitzan zein eraikinean egitura egokitzeko egin beharreko lanak, horiek zaindu eta honda ez daitezkeen, edo hirugarrenek kalterik izan ez dezaten.

d) Zaharkituta geratu diren edo falta diren iturgintza, saneamendu, elektrizitate, berokuntza, gas edo telefono instalazioak edo suteen kontrako babestekoak eraberritu edo aldatzea, 1970. urtearen aurretik egindako eraikinetako elementu komunetan.

e) Eusko Jaurlaritzaren 307/2002 Dekretuan birgaitze integratuko areatzat eta bizitegiatarako area degradatutzat jotakoetan, eraikinen eta etxebizitzaren akabera orokorra eraikuntza onaren irizpideetara egokitzeko behar diren lanak, 1970. urtearen aurretik egindako eraikinetan eta beti ere eraberritu ez badira.

f) Antolamendutik kanpokotzat jotako eraikinak hirigintza araudira egokitzeko behar diren lanak.

Laguntzetan ez dira sartuko lan hauek: eraikinen edo instalazioen ohiko mantentzerako lanak, altzariak, osagai apaingarriak, eta egiturazko konponketa bera egin aurretik hartu beharreko neurri lagungarriak.

Antzinatasuna zenbatzerakoan, etxebizitza lehenengoz erabiltzeko lizentziaren data hartuko da erreferentziatzat eta, halakorik ezean, obra amaierako egiaztagiria, obra lizentzia, edo, azken aukera gisa, katastroan edo erakinen erroldan jasotakoa.

Edonola ere, birgaitzeko esku-hartzeek indarreko antolamenduaren xedapenak bete beharko dituzte, eta behar diren administrazio-baimenak izan.

4. Zuzkidura ekonomikoa

Deialdi honetarako gehieneko zuzkidura ekonomikoa 350.000 euro (hirurehun eta berrogeita hamar mila euro) da, 21 Zabalguneari zuzendutako urrezko auzoetako inbertsioak izeneko 2021erako konpromiso-kredituaren kontura, zeinak 0410-1513-73310 kodea baitu udal aurrekontuan. Laguntzak ematekotan, kreditu egokia eta nahikoa izan beharko da, tramitazioa alde aurrekoa baita.

5. Laguntzen hartzaileak

Birgaitzeko laguntzak obrak eragindako etxebizitzan eta lokalen jabeei edo gozamedunei emango zaizkie, banako gisa eta haien errenta-maila eta familia-egoera kontuan izanik; hala ere, elementu komunetan egin beharreko esku-hartzeetarako laguntzen kasuan, jabetza horizontalaren arauen arabera etxejabeen erkidegoaren ordezkaria denak tramitatu beharko ditu.

Eskatzaileei eman beharreko laguntzen zenbatekoa zehazteko –birgaitu beharrekoa elementu komuna zein elementu pribatiboa izan– familia-egoeraren araberako errenta-tarte hauek ezartzen dira, Euskal Autonomia Erkidegoko babes ofizialeko etxebizitzari buruzko araudian ezarritakoekin bat datozenak:

- a) 1.tartea: 13.300,00 eurotik beherako sarrera-maila haztatua duten bizikidetzak unitateak.
- b) 2. tartea: 13.000,01 eurotik 15.000,00 eurora bitarteko sarrera-maila haztatua duten bizikidetzak unitateak.
- c) 3. tartea: 15.000,01 eurotik 25.000,00 eurora bitarteko sarrera-maila haztatua duten bizikidetzak unitateak.
- d) 4. tartea: 25.000,01 eurotik 39.000,00 eurora bitarteko sarrera-maila haztatua duten bizikidetzak unitateak.
- e) 5. tartea: 39.000,01 eurotik 50.000,00 eurora bitarteko sarrera-maila haztatua duten bizikidetzak unitateak.

Birgaitu nahi den etxebizitzak jabe bat baino gehiago badu —irabazizko ondasun erregimenetik kanpo— laguntzak jabe bakoitzari emango zaizkio, jabetzan duen partaidetza-ehunekoa eta dagokion familia-egoera eta errenta-tartea aintzat hartuz. Adierazi egin beharko da jabe bakoitzaren batek laguntzari uko egiten badio, gastuak eta lan guztiak ordainduko dituzten besteen mesedetan (jabe bakoitzaren edo etxebizitza okupatzen duten gozamedun direnak). Banakoen lanen kasuan, higiezinak jabeen ohiko etxebizitza izan behar du.

Bizitegi-eraikinean PFEZ ordaintzen duen aretorik bada, horiek ere jaso ahalko dituzte eraikinararen elementu komunetan egiten diren lanetarako laguntzak, horietan duten partaidetza-kuotaren proportzioan, garajeetarako aretoen kasuan izan ezik.

Aurreikusitako ezin diren arrazoiek eragindakoek ere jaso ahalko dituzte laguntzak, Udalak subsidiarioki esku hartu behar izan duenean urgentziazko arrazoiak direla eta.

Ezingo dira laguntzez baliatu Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko 2. eta 3. apartatueta edo horren ordezkio arauetan zehaztutako egoeretakoren batean egokitzen diren pertsonak.

Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 13.2 artikuluan onuradun izateko aipatzen diren debeku-egoeretakoren batean ez egotea justifikatzeko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu ahalko da, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrean eta haren araudiaren 18.etik 29.era arteko artikuluetan aurreikusitako moduan.

6. Dirulaguntzen zenbatekoa

Eskatzaile bakoitzari dagokion errenta-tartearen eta egin beharreko obra motaren arabera emango zaizkio birgaitzeko laguntzak.

Laguntzaren barruan sartu ahalko dira babestu daitekeen obren aurrekontua, 3. artikuluan jasotakoaren arabera; proiektuarekin edo lanarekin lotutako ordainsari teknikoak; eraikinaren ikuskapen teknikoaren txostena (erkidegoarentzako laguntza gaingaitzen duen zatian), eta ordaindu beharreko eskubideak, tasak edo aplikatzekoak diren beste prezio publiko batzuk –balio erantsiaren gaineko zerga kanpo geratzen da–.

Babestekoa den aurrekontuaren gehienezko muga eragiketa honen emaitza izango da: etxebizitza bakoitzaren azalera erabilgarri konputagarria –trastelekua eta garajea kontatu gabe– bider laguntza eskatzen den unean Vitoria-Gasteizko udalerrian indarren dagoen erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzak saltzeko modulua.

Etxebizitza bakoitzaren azalera erabilgarri konputagarria benetako azalera erabilgarria izango da, gehienez 90 metro koadroraino; kopuru hori 120 metroraingo handitu daiteke jabeak familia ugaria badira eta etxebizitzan benetan bizi badira, edo Vitoria-Gasteizko udalerriko menpeko toki erakundeetako familia bakarreko etxe isolatuak badira.

Ez da laguntzarik tramitatuko elementu komunei dagozkien lanen aurrekontua mila eurotik (1.000 euro) beherakoa bada, eta elementu pribatiboek dagozkienak bostehun eurotik (500 euro) beherakoak badira, bizikidetzaren unitatearen diru-sarrerak 1. eta 2. tarteetan daudenean salbu.

Ondoko taulan zehazten dira birgaitzeko lanetarako laguntzen zenbatekoak, babestekoa den gehienezko aurrekontuaren ehunekoetan, onuradunen errenta-tartearen eta familia-egoeraren arabera:

Laguntzen zenbatekoak, babestekoa den gehienezko aurrekontuaren ehunekoetan

ERRENTA-TARTEA ETA FAMILIA-EGOERA	ELEMENTU PRIBATIBOAK	ELEMENTU KOMUNAK
1	40	60
2	35	50
3	30	45
4	20	35
5	7,5	20

Obra komunitarioa bada eta laguntza aitortu zaien pertsonen ehuneko 70 gutxienez 1. errenta-tartean badago, laguntzaren zenbatekoa ehuneko 5 handituko zaie 1. tarteko eskatzaileei, babestekoa den gehienezko aurrekontuaren arabera.

Deialdi honi dagozkionetarako, hobariak izango dira 3. artikuluan lehentasunezkoetat jotako lanetarako partidetarako, honen arabera:

– Ehuneko 20, igogailuak instalatzeko, horrelakorik ez duten eraikinetan, edo igogailua aldatzeko, baldin eta kabinaren espazioa handitzeko funtsezko egiturazko obrak egin behar badira.

– Ehuneko 15, ingurutzaille termiko osoaren portaera energetikoa hobetzeko lanetan, eta eraikinaren kalifikazio energetikoa gutxienez maila batean hobetzen badute.

– Ehuneko 30, egitura sendotzeko lanak egiteko, EITean jasotakoaren arabera: 1., 2. eta 3. gradukoak, egitura patologiak eta hondamena eragozteko.

65 urtetik gorako pertsoneri eta ehuneko 33tik gorako desgaitasuna aitortuta dutenei laguntzen zenbatekoa ehuneko 10 handituko zaie baldin eta obren edo jardueren helburu zuzena eraikinaren edo beren etxebizitzaren irisgarritasuna hobetzea bada, hala nola igogailuak instalatzea edo espazio komun edo pribatiboak beren ezaugarri fisiko edo pertsonaletara egokitzea.

7. Dosierren tramitazioa

Deialdia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita 2020ko abenduaren 31ra arte aurkeztu ahalko dira eskabideak —deialdiaren laburpena DDBNan argitaratuko da—.

21 Zabalgunea SA arduratuko da laguntzak tramitatu eta kudeatzeaz, horiek ematea salbu. Sozietateak, organo instrukzio-egilea den aldetik, ofizios egingo ditu ebazpen-proposamena taxutzeko baliatuko diren datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatze beharrezkotzat jotzen dituen jarduerak oro, eta Lurraldearen eta Klimaren aldeko Ekintzaren zinegotziak horietan oinarrituz aurkeztuko dio laguntzak ebazpen-proposamena Tokiko Gobernu Batzarrari.

Sozietateko zerbitzu teknikoek aholkularitza eta laguntza teknikoa emango diete eskatzaileei eskabidea presta dezaten; eskabidearekin batera agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Lanen deskripzioa, behar den euskarri grafikoa eta aurrekontua; aurrekontua partiden arabera banakatuta aurkeztuko da, neurriak eta unitateko prezioak barne, gauzatzeko epea ere zehaztuta. Lanen tamainak eskatzen badu, teknikari eskudunak sinatutako proiektua aurkeztu beharko da.

b) Egitura ziurtagiria, 50 urtetik gorako eraikinetan etxebizitzaren barruan eraberritze lanak egiteko, baldin eta zurezko egitura badute eta lanek alderdi hezei (sukaldea eta bainugela) eragiten badiete; egin beharreko lanen justifikazioa zehaztuko da bertan, eta esku-hartzea gain-begiratu dela adierazi beharko da berariaz.

c) Eskatzailearen oinarritzako datu pertsonalak egiaztatze agiriak, baita laguntzaren bidez birgaitu nahi den etxebizitzaren jabetza egiaztatze agiriak ere, hauek zehazki:

– Jabeen NAN.

– Birgaitu nahi den higiezinaren erregistro-funtsaren erreferentzia.

– Behar izanez gero, desgaitasun-gradua egiaztatze agiria.

d) Erantzukizuneko adierazpena, eskatzaileak helburu berarekin beste laguntzarik eskatu edo jaso badu hori egiaztatze.

e) Eraikinen elementu komunetan lanak egiteko, horiek egiteko erabakia, obren esleipena eta partaidetza kuotak egiaztatzen dituzten agiriak. Jabeen erkidegoaren kontu-zenbakia.

f) Erantzukizuneko aitortpena, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 13. artikuluan onuradun izateko aipatzen diren debeku-egoeretako batean ez daudela adierazten duena.

Lanen aurrekontu orokorra hamar mila eurotik (10.000 euro) gorakoa bada (BEZik gabe), gutxienez hiru enpresaren eskaintzak aurkeztuko dira, eta lanak egiteko zein aukeratu den zehaztu; proposamen ekonomiko merkeena aukeratu ez bada, berariaz azaldu beharko da zergatia txosten baten bidez.

Eskatzaileek obrak zein egunetan hasiko diren jakinarazi beharko diote sozietateari, modu fede-emailean, hasi baino hamabost egun lehenago gutxienez.

Udalak une oro gainbegiratu eta egiaztatu ahalko du deialdiaren kudeaketa, Lurraldearen eta Klimaren aldeko Ekintzaren Sailaren bitartez. Udaleko zerbitzu tekniko eskudunak arduratuko dira finantza-kontrolaz.

Lanak egiten diren bitartean laguntzen titularra aldatzen bada, sozietateari jakinarazi beharko zaio, behar diren jarduerak egin ditzan eta Tokiko Gobernu Batzarrari onuraduna aldatzeko erabaki-proposamena aurkez diezaion, ebazteko.

8. Ebazpena

Tokiko Gobernu Batzarrak gehienez 6 hilabeteko epean ebatzi beharko du laguntzak ematea, deialdia argitaratzean denetik. Epe hori igarota ebazpenik eman ez bada, eskabideak ezetsi egin direla joko da.

Ebazpenean espresuki zehaztuko da dirulaguntzaren zenbatekoa eta diruz lagundu daitekeen jardueran zein zatiri dagokion, zein baldintzatan ematen den laguntza, nola ordainduko den, zein epetan justifikatu behar den eta kobratzeko eska daitezkeen bestelako zirkunstantziak. Orobat, ezetsitako eskabideak adieraziko dira.

Tokiko Gobernu Batzarrak dirulaguntza emateko egiten duen ebazpenak agortuko du administrazio-bidea; sozietateak jakinaraziko die interesdunei, entitate laguntzailea den aldetik, Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40. artikuluaekin bat etorriz, eta berraztertzeko errekurtsoa eta/edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkezteko epea irekiko da, indarrean dagoen legedian ezarritako moduan.

9. Obrak egitea

Babestekoa den birgaitze-obrak aurkeztutako proiektuan ezarritakoari jarraituz egin beharko dira, eta udalaren obra-lizentzian ezarritako epean hasi eta gauzatu; epe hori luzatu egin ahalko da, alde batek eskatuta eta justifikatutako arrazoirik bada, eta horretarako obra-lizentziaren luzapena tramitatu beharko da. Edonola ere, lanak 2 urteko epean burutu beharko dira gehienez, laguntzak ematen direnetik.

Onartutako lanak ezarritako epeetan burutu beharko dituzte laguntzen onuradunek, aurkeztutako proiektuan eta udalaren obra-lizentzian aurreikusitakoa betez, eta lanak ikuska ditzaten utzi beharko dute une oro. Gainera, laguntza emateko orduan kontuan izandako edozein zirkunstantzia aldatuz gero, sozietateari jakinarazi beharko diote.

Lanak bukatu ondoren —edo obra amaierako ziurtagiria lortu ondoren— gehienez hilabeteke epean, laguntzen titularrek amaiera justifikatu beharko dute, eta azken prezioa zehaztu. Horretarako, jatorrizko fakturak, egindako lanen dokumentazio grafikoa eta instalazioen ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte, baita zerbitzuan jartzeari buruzko dokumentazioa ere, Industria Sailak zigilatua, beharrezkoa denean. Erkidegoaren administrazioaren egiaztagiria ere aurkeztuko da, harekin zorrak dituzten pertsonen berri emateko. Laguntza emateko aintzat hartutako zirkunstantzietakoren bat aldatzen bada, 21 Zabalgunea SAri jakinarazi beharko zaio.

Aurreko apartatuetan justifikatzeko ezarritako epea igaro delarik onuradunek edo entitate laguntzaileek beharrezko agiriak ez badituzte aurkeztu, errekerimendua egingo zaie 15 eguneko epean aurkez ditzaten, eta ohartaraziko ezen errekerimenduari emandako epearen barruan erantzuten ez badiote gastuak justifikatzeko betebeharra ez dela bete joko dela, eta horrek laguntza itzultzeko eskatzea ekarriko duela, baita Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrean ezarritako gainerako erantzukizunak ere.

Laguntzak emateko ebazpenen deuseztasun edo deuseztagarritasun kasuez gain, beste kasu hauetan ere itzularaziko dira emandako laguntzak: obrak ikuskatu eta egiaztatzeari uko egitea; aurkeztutako datuak faltsuak izatea; onetsitakoaz bestelako proiektu bat egitea; gauzatzeko epeak ez betetzea, eta lanak esleitzea araudi honetan agindutakoaren kontra.

10. Laguntzak ordaintzea

Tokiko Gobernu Batzarraren erabakiz onetsitako birgaitzeko laguntzak ez dira ordainduko harik eta onuradunek lanak osorik gauzatu direla egiaztatzeko agiriak aurkeztu eta obrak justifikatzen dituzten arte, deialdi honen bederatzigarren puntuan adierazitako terminoetan.

Hau joko da justifikaziotzat: emandako zenbatekoaren kontura egindako gastuak justifikatzeko agiriak aurkeztea organo emaileari, entitate laguntzailearen bitartez; diruz lagundutako jardueraren gastu osoa hartu beharko du barne, dirulaguntzaren zenbatekoa txikiagoa bada ere.

Laguntza ordaindu aurretik nahitaezkoa izango da 21 Zabalgunea SAri fakturak eta merkataritzaren alorreko trafiko juridikoan horien pareko froga-balioa aitortzen zaien bestelako agiriak aurkeztea, edo administrazio-eraginkortasuna dutenak (jatorrizkoak nahiz kopia autentiko edo autentifikatuak).

Fakturen ordainketa-egiaztagiriek erakutsi beharko dute onuradunaren titularitateko kontu batetik egin direla ordainketak, edo laguntzaren onuradun den jabeen erkidegotik enpresa kontratistari funtsak helarazi zaizkiola justifikatu. Ondorio horietarako, jabeen erkidegoaren kontutzat joko da erkidegoaren organo eskudunak horretarako berariaz izendatu duena.

21 Zabalgunea SAk eskatzaileek adierazitako kontuan ordainduko du laguntza, banku-transferentziaren bidez eta emateko erabakian zein deialdi honetan ezarritakoaren ildotik.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 34.5. artikuluari jarraiki, ezingo da dirulaguntza ordaindu harik eta entitate onuradunak Arabako Foru Aldundiarekiko, Vitoria-Gasteizko Udalarekiko eta Zerga Agentziarekiko zerga-betebeharrak beteta eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordainduta eduki arte, edo zordun gertatzen bada, dirua itzultzea bidezkoa dela ebatzita.

11. Onuradunen betebeharrak

Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren arabera, onuradunek betebeharrak izango dituzte:

a) Dirulaguntza ematea oinarritu duen helburua betetzea, proiektua gauzatzea, jarduera egitea edo dagokion bezala jokatzea.

b) Betebeharrak eta baldintzak betetzen direla justifikatzea organo emailearen edo erakunde laguntzailearen aurrean, baita jarduera burutu dela eta dirulaguntza ematea edo eskuratzea ekarri zuen helburua bete dela ere.

c) Organo emaileak edo entitate laguntzaileak egiten dituzten egiaztatze jardueren mende jartzea, baita estatuko edo komunitateko organo eskudunek egin ditzaketen egiaztatze eta finantza kontroletarako jardueren mende ere, jarduera horietan eskatzen duten informazio oro emanez.

d) Organo emaileak edo erakunde laguntzaileak jakinaren gainean jartzea jarduera berak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik eskuratuz gero. Jakin bezain laster eman beharko da horren berri, eta, nolana ere, jasotako funtsak zertarako baliatu diren justifikatu aurretik.

e) Dirulaguntza emateko ebazpen-proposamena egin aurretik zerga-betebeharrak bete direla eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordaindu zaizkiola egiaztatzea, arauz ezartzen den moduan eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 60. artikuluan ezarritakoa ere kontuan hartuz.

f) Onuradunari aplikagarri zaion merkataritza eta sektore legediak eskatzen dituen kontabilitate liburuak, izapidetutako erregistroak eta behar bezala kontrolatutako gainerako agiriak edukitzea, baita dirulaguntza-deialdian eskatutako kontabilitate-egoerak eta berariazko erregistroak ere, egiaztatze eta kontrol ahalmenak egoki betetzea bermatzearen.

g) Jasotako funtsak zertarako baliatu diren justifikatzen duten agiriak gordetzea, agiri elektronikoak barne, kontrolatu eta egiaztatu ahalko baitira.

h) Legearen 18. artikuluko 4. apartatuan zabalkunderako ezarritako neurriak hartzea.

i) Jasotako funts publikoak itzultzea, legearen 37. artikuluan adierazten diren kasuetan.

j) Erregistro publiko batean inskribatu daitezkeen ondasunen kasuan, zirkunstantzia hori jaso beharko da eskrituran, baita emandako dirulaguntzaren zenbatekoa ere, eta alderdi horiek dagokion erregistroan inskribatu.

k) Dirulaguntza zein xede zehatzetarako eman zen ondasuna hartarako baliatzea; erregistro publiko batean inskribatu daitezkeen ondasunen kasuan, epea ezingo da bost urtetik beherakoa izan.

l) Aurreko paragrafoan aipatutako helbururako erabiltzeko obligazioa ez betetzea —ondasuna besterentzen bada edo irabazizko kargaren bat ezartzen bada gertatuko da hori— dirulaguntza itzularazteko arrazoia izango da; ondasuna ordainketari atxikita geratuko da, edukitzailea edozein delarik, erregistroko fede publikoak babestutako hirugarren bat izan ezean, edo ondasunak fede onez eta titulu zuzenez edo merkataritza edo industri establezimendu batean —inskribatzekoak ez diren ondasun higikorren kasuan— eskuratu direla justifikatu ezean.

m) Kontrol jardueretan laguntzea eta eskatutako informazio oro ematea; aipatutako organoek Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 46. artikuluan zehaztutako ahalmenak izango dituzte zeregin horietan.

12. Beste laguntzekiko bateragarritasuna

Deialdi honetan aurreikusitako laguntzak bateragarriak dira helburu bererako ematen den beste edozein laguntza publiko zein pribaturekin, baldin eta diruz lagundu daitezkeen lanen kostuaren ehuneko 80 gainditzen ez badute orotara. Horretarako beste administrazio publiko edo erakunde publiko eta pribatuei eskatutako laguntzei buruzko erantzukizunpeko adierazpena gehitu beharko da.

Nolanahi ere, azken 5 urteetan etxebizitza berean egindako obra ezberdinengatik jasotako laguntzen batuketa ez da izango babestu beharreko aurrekontuaren gehieneko mugaren ehuneko 80tik gorakoa, deialdiaren 6. puntuan deskribatutakoaren arabera.

13. Ez-betetzeak eta itzulketak

Hauek aplikatuko dira ez-betetzeei dagokienez: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legea, eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, zeinaren bidez Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen araudia onesten baita.

14. Publizitatea eta zabalkundea

Tokiko Gobernu Batzarraren erabaki baten bidez egingo da laguntza-deialdia. Deialdia ALHAOn argitaratu beharko da, Vitoria-Gasteizko Udalaren iragarki-taulan erakutsi, eta Dirulaguntzen Publizitate Sistema Nazionalera bidali, Dirulaguntzen Datu-base Nazionalaren bitartez.

Orobat, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean ezarritakoarekin bat etorriz, deialdia bide elektronikoz zabalduko da, Vitoria-Gasteizko Udalaren web-orriko egoitza elektronikoa eta 21 Zabalgunea SA udal sozietatearen web-orrian argitaratuz.

Vitoria-Gasteizen, 2020 azaroaren 10ean

Alkate-lehendakaria
GORKA URTARAN AGIRRE